



Pausoka elkarteak botako du Sanmielen hasierako txupinazoa

Behar bereziak dituzten haurren gurasoen elkarteak aurtengo jaiei hasiera emango die.

Urnietako jai batzordeak ahobatez erabaki du aurtengo Sanmielako jaien hasierako txupinazoa botatzeko aukera Pausoka elkarteari ematea. Behar bereziak dituzten haurren elkarte sekulako lana egiten ari da eta Urnietan sorburua badu ere, dagoeneko Gipuzkoa osoko 47 familien beharrak osatzen ari dira. Maria Lesaca-urnietar guztientzat "Markelen ama"- elkartearen sustatzaile nagusia da. Pausokan buru belarri murgilduta dabil eta bera eta bolondres taldea aste hauetan lan eta lan ari dira. Ikasturte hasiera lanpetu samara izaten ari da. Asteartean laguntza eman die-



Elkarteko gurasoak eta haurrak, Pausoka elkartean bertan.

ten pertsona eta erakundeei esker ona adierazteko ekitaldia antolatu zuten Hernanin.

Eta, laster, Sanmielatan txosna jartzekoak dira. Horretan ere lanean dihardute. Hori guztiarekin nahikoa ez eta urriaren 11n egun osoko festa antolatu dute Hernaniko Atsegindegin.

Maria Lesacarekin hizketan, esker ona hitza behin eta berri errepikatzen du. Izan ere, pertsona eta erakunde ugari laguntza eskaintzen ari zaizkie.

Urnietako Sanmielatan txupinazoa botako dute eta ohorea izango da haientzat: "Jai batzordeko kide guztiei Pausoka elkartearen esker ona adie-

razi nahi diet. Ilusio handia egiten digu, ueña iristen denean oso urduri jarriko naiz, baina argi dago eskerrak eman gabe ez naizela geratuko".

Jaietan, gainera, Pausoka elkarteak agerpen handia izango du. Txosnatako bat Pausokarena izango da eta txosnagunean aurtengo jarriko duten tonbolatik ateratako dirua Pausokara bideratzeko izango da. Txosna jartzeko eta tonbola antolatze-ko Maria Lesacak esker berezia adierazi nahi die hainbat herrikideri. Hauexek: Nerea Uria, Ainara Albizu, Alazne Nuñez, Aitor Argiñarena eta Aitor Valverde.

Irailaren 28an, igandea, Pausoka elkarteak Rafafa magoaren saioa eta txokolatada antolatuko ditu. Ospakizun hori magoaren, Pedro Mayo enpresaren eta Urnietako Coviran dendaren ekarpenei esker burutu ahal izango da.



Musika eragileari gorazarre

Sorabillako jaietan **Jexux Mari Otamendi** txistulari eta musika eragilea omendu zuten.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEA]

Gazte Lokalak martxan

Urnietakoak aste honetan atek zabalduta eta Andoaingoak datorren astean.

Beraza, musika zainetan

Sona handiko musikari eta abesbatzen zuzendaria izan da Ramon Beraza azken hamarkadetan eta ardura horri eusten dio oraindik.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Pausoka elkartearen alde busti ziren

Astearte iluntzean, Pausoka elkarteak Hernanin duen egoitzan, bogan dagoen *Ice bullet* estiloari jarraituz, hainbat lagun elkartearen alde busti zen. Batetik, elkarteari ekarpena egin dieten pertsonak. Eta, bestetik, urriaren 11ko jaietan parte hartuko duten kultur eragileak. Busti zirenek desafioa bota diete beste hainbat eragileri.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]



Urnietako UDAko kideek ekarpen ekonomiko handia egin dute.



Maiteder Requejo eta Maria Lesaca Hernanin, Pausoka elkarteko kideak.



Porrotx eta Marimotots pailazoak ere Pausokaren alde busti ziren.

Irailako programazioa

Irailak 11. Askaria.
Irailak 12, 15, 19, 22 eta 26. Topagune.
Irailak 13. Leitzarnera irteera
I.D.B.H.koekin.
Irailak 16. Pultsera tailerra.

Irailak 17. Ping-Pong txapelketa.
Irailak 18. Gazte Forum bideoa.
Irailak 23. Eskulana.
Irailak 24. Futbol txapelketa.
Irailak 25. Mural kolektiboa.

Plazido Muxika Plazan - 943 333 972 - gazteleku@urnieta.org
www.facebook.com/urnietako.gaztelekua



Urnietako Udala

UrNietako

GazteLeKua



Gazte Lokala zabalik

Urnietako Gazte Lokala ikasturte berrirako martxan jarri da. Astelehenaz geroztik ateak zabaldu ditu.

Astean zehar, astelehenetik ostiralera, arratsaldero zabalik izango da 17:00etatik 20:00etara.

Euskara ikastaroak AEKn

Oinarrizko euskara ikasi edota hobetzeko aukera ikaslearen esku dago. Norberak aukera dezake zenbat egunez joan nahi duen euskaltegia, baita ordutegia ere. Autoikas-kuntzaren aukera hor izanik ere, taldeka ikasteko aukera izango da: Euskara maila ho-

betzeko, hizketan trebezia hartzeko edota testuak egoki idazten ikasteko. Udal laguntza %100ekoa izatera iritsi daiteke.

Astigarragako AEK:
607 610 687
astigarraga@aek.org

Helduen heziketa

Idazten eta irakurtzen ikasi, komunikazio trebetasunak hobetu eta ezagupenak gaurkotzeaz gain, Bigarren Hezkuntzako graduatua ere lor daiteke EPA-HHI helduen hezkuntzarako ikastetxeetan. Urnietarrak edota urnietan erroldatuta direnentzat Hernaniko ikastetxea da gertuen duten gunea. Hernanin, gainera, hizkuntzak (euskara eta ingelesa, oinarriko mai-

la), informatika eta sarbide probak prestatzeko ikastaroak ere eskaintzen dituzte. Ikastaroetan parte hartzeko 18 urte beteta behar dira. Matrikula doakoa da.

Izen-ematea zabalik
Hernaniko Antziola 62 kalean, goizeko 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Ostiraletan, goizez soilik zabalik.

Irrintzi lehiaketa

Irailaren 29an, Iñistor jaia- ren baitan, Maria Arizmendi irrintzi lehiaketaren edizio berria jokatu da. Ohiko saries gain, aurtun helduen mailan Urnietako irrintzi

onenari saria emango diote. 14 urte azpiko gaztetxoek ere, sari bana jasoko dute parte hartzeagatik. Izen-ematea telefono bidez egin daiteke: 943 300 732.

“Edozer dugu posible” lelopean, egitarau oparoa aurkeztu dute

Poxta Zahar taldearen hitzorduak Sanmieletan

Irailaren 25ean hasi eta 29ra arte hitzordu ugari biltzen dituen afitxa zabaltzen hasi da Poxta Zahar taldea. Janarekin eta musikarekin loturiko hitzorduez gain, beste zenbait ekitaldi gehiago iragarri dituzte. Besteak beste, koadrilen arteko olinpiadak edota koadrilen arteko futbol txapelketaren finalak. “Edozer dugu posible” lelopean, egitarau oparoa aurkeztu dute.

HASTEKO, ROCKABILLY KUTSUKO GUATEKEA

Aurreko mendeko 50 eta 60. hamarkaden estetika keinua egingo diote lehen gauan, rock and roll doinuak entzuten diren bitartean. Txosna batzordeak “Guateke rockabilly” a iragarri baitu irailaren 25erako.

EGITARAUA, POXTA ZAHAR

Irailak 25, osteguna

18:00 Olinpiadak, patin proba.
19:30 Txosnen irekiera.
22:00 Tortila lehiaketaren aurkezpena.
22:30 Olinpiaden aurkezpena.
23:00 Guateke rockabillya.

Irailak 26, ostirala

17:00 Musika alternatiboa “Ratoneran”.
17:30 Olinpiadak, argazki ginkana.
19:00 Koadrilen arteko futbola, 3-4. postuak.
20:00 Koadrilen arteko futbola, finala.
21:00 Oilasko jatea.
23:00 Kaotiko, Glaukoma eta Sangre de mono.
02:00 Olinpiadak, aulki jokoa.

Irailak 27, larunbata

12:30 Olinpiadak, globo jolasa.
12:45 Anplipoteoa.
15:00 Bazkaria txosnagunean. Tiketak salgai Xauxarren eta Amailurren.
17:00 Olinpiadak, plastikoaren proba.
17:30 Rock Kam Broom.
23:00 Bad sound system eta Los zopilotes txirriaos.
02:00 Olinpiadak, kamasutra proba.

Irailak 28, igandea

19:00 Bi bala bertso saioa.
19:30 Talo jatea.
22:00 Musika: herriko taldeak.

Irailak 29, astelehena

19:00 Sagardo dastaketa eta hegaluze jatea plazan.

Alkate txikien aukeraketa

Aurtengo Sanmieletan haurren eguna irailaren 30ean ospatuko da, asteartearrekin. Egun horretan eta urtero bezala, herriko mutiko eta neskatok batek Alkate txikien kargua beteko dute. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean egingo

da, ohi bezala, agintarien aukeraketa.

Izena ematen dutenen artean aukeraketa zozketa bidez egingo dute. Beraz, parte hartzeko izena eman beharra dago irailaren 11 bitarte, Lekaio kultur etxean.



Sanmielak 2014

Irailak 29

VIII. Iñistor jaia
Jakutegi plazan

12:30 VIII. Maldan-gorako Iñistorra Toka Txapelketa, San Juan plazan.

14:30 Herri bazkaria.

Helduentzako menua 25€

Bertan egindako paella, zekor biribilkia (redondoa) barazki eta patata purearekin, esnegainezko ijito besoa (brazo gitanoa) kremaz egindako saltsa eta kanelarekin, kafea eta belar txupittoa, koñaka edo patxarana.

Haurrentzako menua 16€

Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin, eskalopea txip patatekin eta sandwix izozkia.

Bazkarirako txartelak aurrez erostea ezinbestekoa da.

Azken eguna: irailaren 26a.

Jadanik salgai daude ondorengo lekutan: URNIETAN.

• KANTOI taberna (San Juan plazan)
• AMAILUR taberna (Idiazabal kalea)

16:30 Bertsolariak

Andoni Egaña (Zarautz), Uxue Alberdi (Elgoibar), Nerea Elustondo (Legazpi), Iñigo Manzísidor, Mantxi (Zarautz). Gai jartzaila: Amaia Agirre (Villabona).

17:30 “Urnietar Prestu” 2014 izendapena.

Edu Muruamendiaraz dantzaria izango da omendua.

19:00 VI. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.



Antolatzaile: Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra, Manuel Larramendi Kultur Bazkunekoak.
Laguntzaile: Txanbolin txistulari banda Egape Dantza Taldea, Banaiz Bagara elkarteak.
Babesle: Urnietako Udala Aiurri astekaria.

HERNANIKO ATSEGINDEGIN PAUSOKA EGUNAREN LEHEN EDIZIOA

Pausoka eguna urriaren 11n

Sanmielak amaitu eta hurrengo asteburuan, Pausoka elkarteak osatzen duten 47 familiek egun osoko ospakizunera gonbidatu nahi dituzte urnietarrak eta, oro har, eskualde osoko biztanleak.

Egoitza nagusia Hernaniko Floridan dutenez, Pausoka egunaren lehen edizioa Hernaniko Atsegindegin izango da. Egunerokoa bazterrean utzi eta gozatzeko eguna izango da.



Maiteder Requejo eta Maria Lesaca Hernanin Pausoka elkarteak duen egoitzan.

Urriaren hamaikakoa elkartearen egunerokoa eta etorkizuneko asmoak finantzatzeko baliagarri izango da. Bide batez, deialdiarekin elkar-tea lau haizetara ezagutarazteko helburua dute. Eta hori guztiaz gain, asmoa oztupoz beteriko egunerokotasunetik irten eta behar bereziak dituzten familientzat festa giroan egun atsegina igarotzea da. Urnietarrek zeresan handia dute Pausoka elkartearen. Urnietarrak izan zirelako elkar-tea abiatu zutenak, bereziki, Markelen ama den Maria Lesaca. Hernaniko Udalak Florida auzunean egoitza utzi zientetik ez diote hazteari utzi eta dagoeneko bertan terapia eskaintzen ari zaizkie berrogeita zazpi familietako haurrei. Sekulako garapena izaten ari da elkar-tea, eta dagoeneko behar bereziak dituzten haurren familientzat erreferentziatzeko elkar-tea da Gipuzkoan.

Baliabideak erosteko eta teknikariak eta adituak kontratatzeke, ordea, diru asko behar

dute. Finantzaketarako hainbat ekimen bideratu dituzte orain arte eta bide horretan jarraitzeko ideiarik ez zaie falta. Alde horretatik, urriaren 11koa mugari izan daiteke.

PAUSOKA EGUNA

Urriaren 11 elkartasun eguna izango da, egun osoko hitzorduen bitartez Pausoka elkarte-ari laguntza adierazteko aproposa. Ospakizuna izango da, baina baita aldarrikapen eguna ere. Eta, noski, finantzaketa handiagoa lortzeko aukera ere bai.

Lantaldea xehetasun guztiak lotzeko lanean ari da. Mariak behintzat modu berezian eskertu nahi du egun osoko ospakizuna burutzeko honako kideen laguntza: **Maiteder Requejo, Kristian eta Adriana Lesaca** anai-arrebak eta **Almudena Salas, Joseba Labaka, Rosa Sanchez, Arantxa Corbelle** eta **Nerea Uria** urnietarrak.

Laster behin betiko kartela zabalduko dute, eta bazkarirako txartelak erosteko aukera

irekiko dute. Tailerrak, dantza, musika eta pailazoaren emanaldia iragarri dituzte. Egun osoko egitaraua izango da.

Pertsona ezagun ugari

Kultur, kirol eta telebista eremuetako hainbat pertsona ezagunek bat egin dute jaiarekin. Besteak beste, Porrotx pailazoa, Korta arraunlaria, Markel Bergara eta Aintzane Encinas Realeko jokalaria, Silvia Ederra Bera Bera taldeko jokalaria, Koldo eta Ari El Conquis ETB2ko saioko partaideak, etab.

www.pausokaelkar-tea.org

PAUSOKA EGUNA



URRIAK 11, LARUNBATA ATSEGINDEGI, HERNANI

10:00 Aurrekua Gudarien plazan.
10:30 Kalejira txistulariekin, alde zaharrean hasita.
11:30-13:30 Tailerrak: Kirol ego-kitua, elikadura osasuntsua, batu-kada, taldekako jokoak, puzgarriak, tatuaiak eta trentzak.
14:00 Paella jatea Atsegindegin.
16:30 Ballet ikuskizuna.
17:00 Porrotx eta Ane Pirata.
19:00 Kontzertua: Lauroba.
20:30 Jaiaren amaiera.



BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa.

Taldea osatu eta eskaera egin
info.gipuzkoa@gipuzkoa.net helbidean.



www.gipuzkoa.eus

Orreaga eta Auritz aldera irteera, irailaren 20an



Taberna berrituta, irailaren 5ean ateak ireki zituzten berriro.

Olagain auzoko **Santa Krutz erretirodunen zentroak** irailearen 20rako Orreaga eta Auritz ezagutzeko txangoa antolatu du. Irteera Olagain auzoko sarreratik izango da, goizeko 08:30etan. Antolatzailerik eguneko planaren berri eman dute: "Orreagara iristean, bisitaldi gidatua izango da monasterioa ikusi nahi dutenentzat. Ondoren

Auritzera bideratuko gara, eta bazkaria bertan izango da 14:00etatik aurrera Txiki-polit jatetxean. Bazkal ostean, etxerantz abiatuko gara, erdian geldiuinetxo egingo dugularik". Bidaiaaren prezioa 37 eurokoa da.

Txartelak dagoeneko salgai daude erretirodunen tabernan, eguerdiko 13:30etatik arratsaldeko 19:00etara.

Hobekuntzak Galardi kalean

Galardi kaleko 10 eta 12 zenbakien arteko espaloia konponduko dute gaurtik aurrera. Hilabete inguru iraungo dute lanek eta Udalak barkamena eskatu die bizilagun eta herritarrei, euren egunerokoa aldatu beharko dutelako. Lan hauen helbu-

ria bertako bizilagunen eskaerei irtenbidea ematea eta irisgarritasuna hobetzea dira. Horretarako, aurreikusituz dituzten lanen artean, oinarria saneatzea eta hormigoizko bordillo eta espaloia hexagonal berrezartzea daude.

Ekimena Ganbo iturri kultur elkarteak sustatu du

Elkarbizitza sustatzeko taldearen aurkezpena

Postontzia

ganboiturri@gmail.com

"Ganbo Iturrik duen helbururik nagusia balioen sustapena da. Horixe izan da orain arte, azken bi urteetan, bailarako herri ezberdinetan garatu dugun Pyrenaeus programaren xedea.

Bide beretik, beste egitasmo bat jarri nahi dugu martxan: 'Elkarbizi'. Oraingoan, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbil herrietan hasiko duguna.

Ostegunean, irailak 11, arratsaldeko 20:00etan egingo dugu Elkarbizi egitasmoaren azalpen publikoa, Lasarte-Oriako Villa Mirentxu udal egoitzan.

Ondean azaltzen dizuegu gure asmo berriaren argibide zehatzagoa:

Elkarbizitza sustatzea helburu izango duen taldea sortu nahi dugu. Bizikidetzaren gaineko ikuskera ezberdinak azaldu direla jakina da. Eraikak izan diren biktimenganako memoriaz edo presoan gizarteratze beharraz arduratzen direnak nabarmentzen direlarik.

Baina, aurreko hori ahaztu gabe ere, urteetan zabaldu den indarkeriak utzitako izua deserrotzen lagundu behar duen 'zoru etikoa' prestatu nahi dugunok ez daukagu ahotsik.

Hortxe, beraz, abiatu nahi dugun asmo berri honen arrazoiak. Ikusirik kaleko giro an-

tzekoa bizi izan duten udalerriek osatutakoa eskualdea dela, Buruntzaldeako barruti honetan ariko den giza-taldea sortu nahi dugu.

Taldearen asmo-oinarriak zehatzago, ostegunean irakurriko dugun Sortze-agirian azaltzen ditugu.

Gure taldea, elkarbizitza (askea eta anitza) normaltzen laguntzeko jaio da. Hartara, egin nahi dituen ekintzak:

1. Gogoetatu eta iritzia sortu, elkarbizitza lantzeko sortzen den edozein esparruetan eta komunikabideetan;
2. Taldeko kideentzat edo taldez kanpoko jendearentzat ere, prestakuntzarako mintegi eta jardunaldiak antolatu".

Helduen heziketa

Matrikula epea ireki da EPA-HHIn, pertsona helduen hezikuntzarako ikastetxean. Urnieta eta Andoainen idazten eta irakurtzen irakatsi, komunikazio trebetasunak hobetu eta ezagupenak gaurkotzeaz gain, Bigarren Hezikuntzako gradua-

tua lortzeko klaseak ematen dituzte.

Andoainen hizkuntzak eta informatika ezagutza jasotzeko aukera ere badago. Euskara, ingeleza eta informatika klaseak eskainiko dituzte astean bi egunetan; goizez, arratsaldez eta gauez.

Matrikula doakoa da. Izena eman nahi duenak Kale Nagusia jo beharko du.

Matrikulazioa

10:00-12:00 / 17:00-19:00.
Kale nagusia, 4B.
943 30 40 21.

Euskara helduentzat

Andoaingo AEK euskaltegiak 2014-2015 ikasturterako matrikulazio kanpainaren berri eman du. Ikasturtea urriaren 2an hasiko da eta ekainaren 18an bukatu. Dagoeneko eta irailaren 26ra bitarte, matrikulaziorako epea zabalik dago. Euskalduntze maila guztiak eskaintzen dituzte. 1go, 2. eta 3. mailako hizkuntza eskakizu-

nak prestatzeko eskolak edota EGA titulua eskuratzeko prestatuta saioak.

Orduzabala da, goizetik gauera. Pertsonalizuatuago den zerbait nahi duenarentzat, autoikaskuntza sistemak orduzabala ikaslearen beharretara egokitzea ahalbidetzen du.

Eta eskaintza osatze aldera, Mintzalaguna zerbitzua ere es-

kaintzen dute Andoaingo Udalarekin batera, hitz egiteko erraztasuna irabazteko.

Udalak diruz lagundutako ikastaroak dira.

Matrikulazioa

10:00-13:00 / 17:00-20:00.
Extremadura kalea, 5.
943 59 17 04.
Epea: Irailak 26.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ANDOAINGO GUDUA 1837

ORAIN LAMINAK SALGAI

IRAILAREN 8TIK
AURRERA

600mm x 420mm

SALGAI:

ANDOAIN

Stop, Delgado eta Ernaitza liburutendak.
Leitzaran markoak (Kale Berria) eta
Aiurri (Arantzibia plaza, 4-5)

Sorta osoa: 25 € (4 lamina)
Laminak banaka: 8 €

Erne! Aiurriko harpidedunek
eskaintza berezia dute
hamaboskariaren bitartez (20 €)
Ikus 435. zenbakia, irailaren 19an



AÑORGAKO ERTIZKA OTXOTEKO ZUZENDARIA DA

Ramon Beraza, abesbatzen zuzendari

Ramon Beraza (Andoain, 1949) musika zainetan daraman gizona dela esan daiteke. Sona handiko musikari eta abesbatzen zuzendaria izan da azken hamarkadetan eta ardura horri eusten dio oraindik;

Añorgako Ertizka Otxoteko zuzendaria da 2001az gertoztik. Aurten bere 50. urteurrena ospatzen ari da abesbatza hori, eta besteak beste, argazki erakusketa ipini dute Añorgan.

Nola eta noiz heldu zenion musikari, bizitza osoa markatu dizun horri?

Ramon Beraza: Txikitan, Kale-txikiko etxean, izugarri kantatzen genuen guztiok. Gure aitona, Segundo Olabarrieta, Plazaolako makinista zen eta denbora zeukan, kitarra jotzen ez bazuen, kantari ibiltzen zen. Giro hartan esango didazu... Ni 1949koa naiz, eta jada bost urterekin, akordeia jo nahi nuela sartu zitzaidan buruan.

Alberto Agirreren ostean Luis Fracak hartu zuenean musika eskolaren ardura, eskolan izena eman nahi zutenentzat zerrenda jarri zuten kontsejuean. Nire kabuz, Luis Mari nire anaiaren eta bion izenak jarri nituen; zerrendako lehenak izan ginen! Banda osatzeko orduan Fraca grinatuta zebilen nik tronpeta jo nezan, baina pianoari eutsi nion. La Sallera ikastera joan nintzenean, berri, musikaz blai bustitako mundu berri bat ireki zitzaidan. Goizetik gauera, kantuan edo era guztietako instrumentuak (armonikoa, organoa, pianoa, akordeoia...) eskutan igarotzen nuen. Behin 12 urte nituela, belaua hautsi nuen futbolea, eta bolada batean, jolas garaian, akordeoi txikia hartu nuen laguntzat. Bakarka kontzertuak ematen ere hasi nintzen.

Urteetan aurrera, Donostiako kontserbatorioan matrikulatu nintzen. Pianoari eman nion gogor, Juan Pedrosa irakasle ospetsuarekin. Etxean ez geneukan pianorik, eta Exkerranea tabernara joaten nintzen praktikatzerara. Hiru neska zahar bizi ziren bertan, eta piano zahar bat zeukaten sukaldean. Zuzeko lurra zeukan sukaldeak, eta akustika ona. Hurrengo pausoa, Donostian bigarren eskuko pianoa erostea izan zen, kasik hileko soldata ordainduz.

Abesbatzen munduarekin lotzen da zure izena, batik bat...

R.B.: 22 urterekin-edo murgildu nintzen abesbatzen mun-



Ramon Beraza, Ertizka Otxoteko zuzendaria, argazki erakusketa erakusten duen argazki erakusketan. Irailaren 30a arte dago zabalik Museum Cemento Rezolan, Añorgan.

duan, burubelarri. Antton Aiestaran zuzendari zuen Donostiako Orfeoian izan zen hori, alderdi teknikoan. Era horretan, kantuaren goren maila ezagutzeko pribilegioa eduki nuen: munduko zuzendari eta abeslaririk onenak, koralen kulturaren gailurra... 14 urte egin nituen taldekide, baina opor garaiak kontzertu garaiak izaten zirenez, uztea beste erremedioirik ez nuen eduki. Irakaslea zen emaztea, eta lehentasuna eman genion oporrak elkarrekin igarotzeari.

Aurki, baina, Easo abesbatzatik hots egin zidaten. La Sallen irakasle gisa ezagutua nuen Tomas Aragues zeukan zuzendari. Sei hilabetera utzi egin zuen eta neu izendatu ninduten postu horretarako, 1985ean. 1992 arte aritu nintzen zuzendaritzan. Tarte horretan, Alberto Agirre abesbatza andoaindarra ere zuzentzeko aukera eduki nuen.

Ertizka Otxotekoekin, noiztik?

R.B.: Bizitzan zehar taldea bidera aterata zaidala esango nuke. Getarian ezagutu nuen 1965ean, Andoingo Lizar Makil dantza taldearekin joan ginen txanda batean. Zeharo ha-

rrituta geratu nintzen oholztan kantari aritu zen zortziko harekin eta gidari zuen Antton Aiestaran handiarekin! Handik urte batzuetara geure ezkontza egunean, ezustean, adiskideek gonbidatuta Otxotea agertu zen kantari. Taldeko sortzaileak adiskideak ditut aspalditik, eta 2001ean, taldea zuzen nezan proposatu zidaten. Gaur arte...

Noiz arterako kuerdarekin?

R.B.: Andoingo Kutzako sukurtsalean 31 urtez jardun ostean, 2010ean kultura sailera joan nintzen Donostiara. Egunotan bete ditut 65 urte, eta oraintxe hartzen dut jubilazioa lantokian.

Musikari gisa, berriz, indartsu sentitzen naiz oraindik, osasunez zein izpirituz. Noizean behin pentsatzen dut dena utzi beharko nukeela, eta musika entzule soil bihurtu; besteek sortzen dutenarekin gozatzerara jarri. Gainera, poza ematen du zenbat musikari gazte, profesionalik bikain prestatutakoak, ari diren plazaratzen ikusteak.

Ertizkaren ikuspegitik ere, nahiko nuke zuzendari gazte bat sartuko balitz taldea zuzentzerara.

Gazte horiek, ordea, zail daukate! Logikoena, bizimodua, daukaten ikasketa akademikoarekin ateratzea behar luke izan. Baina amets hori nekez egiten zaie egingarri talde amateur bategin.

Zuen abesbatza erabat amateur da...

R.B.: Bai noski. Jende erabat normalak osatzen du Otxotea. Denetik dago taldean, langabeteren bat edo baldintza prekarioetan aritzen denik ere bada tartean! Euskal Herritik kanpo, harritura geratzen dira gurekin. Ezin dute sinetsi adierazten diegunean biharamunean, astelehenean, nor bere lanpostura joan behar dugula.

Ez dago ondo neronek adieraztea, baina kalitate handiko taldea dela aitortu behar da. Nahiz eta talde murrizta izan gurea, abesbatzarik onenen parean dago. Egia esan, ametsaren eta errealtatearen artean borrokan aritzen naiz neure buruarekin. Batetik, nahiko nuke taldea pauso bat gorago ematen saiatuko balitz, teknikoki zailagoak diren obrak jorratuko balitu. Baina horretarako, profesionalizatu egin beharko litzateke taldea... Oreka horretan jokatzerara ohitu beharra daukat.

Nola ulertzen da Otxotea izatea eta 12-13 abeslariko formatuan igotzerara oholztara?

R.B.: Askok galdetzen digute horixe. Egia esan, ezinezkoa da bakar-bakarrik zortzi ahotsekin (tenore, baritono eta baxuak) ordu terdiko kontzerturik eskaintzea. Nekagarria egiten da tenorentzat, batik batik. Esaterako, Basteron aritu ginen txandan, Mozarten kantata masonikoa eskaini genuen lehen zatian (45 minutu). Ondoren, euskal piezak abestu genituen. Errepertorio hori dena otxote bategin, nekez!

Euskal kulturaren enbaxadoreak sentitu zaretela aitortu izan duzue maiz...

R.B.: Frantziara, Alemaniara,

“Ez dago ondo neronek adieraztea, baina kalitate handiko taldea dela aitortu behar da”

Japoniara, Marokora, Aljeriara... munduko bazter askotara joan gara, eta beti-beti, ahoan euskal kantutegia daraman euskal taldeetat aurkeztu dugu geure burua.

Zein ezaugarri eduki behar ditu zuzendari batek, zure ustez?

R.B.: Etxetik ondo ikasita eta landuta eraman behar dituzu abestiak, partituras ondo markatuta, e.a. Hori eginda, abeslariari modu ulergarrian transmititu behar diezu zer egin behar duten. Nabaritu behar dute zuzendariak argi daukala zein den taldeak bete beharreko helburua.

Horrez gain, estilo kontua dago. Keinu ikusgarriko zuzendaria estimatu izan da maiz, jeno handikoa dela pentsatuz. Zer esango dizut... Ni diskretuagoa naiz; emaitza da garrantzia daukana.

Derrigorrezko hitzordua daukazu urtero Andoainean, Santa Agueda bezperan...

R.B.: Pozik hurbiltzen naiz jaioterriera, errotu den tradizioa delako. Egia aitortzera, sentimendu kontrajarriekin itzultzen naiz etxera. Ezintasun pittin bat sentitzen dut batetik; gehiago sakontzeko gogoz geratzen naiz, gauza berriak egitera ausartuko bainintzateke, baina horretarako entsegu bereziak egin beharko liriateke, eta hori ez da posible.

Bestalde, poztasuna sentitzeko motiboak ikusten ditut. Ekitaldiak bere funtzioa betetzen du, kantua kalera ateraz usadio bat berritzea alegia, eta gainera, aitona-amonak, gurasoak eta haurrak, denak nahastuta ikusten dira. Gaztetxengan dago etorkizuna, eta horiek zaindu behar dira.

SORABILLAKO JAIK 2014



Herri krosean Hassan Ait Chao eta Nerea Amilibia nagusitu ziren. Argazki gehiago flickr gunean ikusgai.



Eskudero anaiak eta Ugalde-Gonzalez bikoteak izan ziren Iturzaeta memorialean irabazleak.



Myriam Ulanga, Joxe Mari Oartzabal, Uxue eta Itxaso Sanchez, Uxue Ricon eta Imanol Iribarren musikariak.



Fernando Gaston auzoko ekintzailea zendu berria da, eta hura gogoan izan zuten jaietan.



Gaztetxoak auzo bazkarian.



Lokotxak biltzen aritu ziren larunbat arratsaldean, haur eta gaztetxoei eskainitako egunean.



Tomax eta Muxugorri pailazoek auzoko eta herriko haur askoren arreta bereganatu zuten.



Aitor Mendiluze, Jon Eskudero eta Millan Telleria bertsotan. Atzean, Ion Beloki gai-jartzailea.

SORABILLAKO JAIK 2014

Sorabillako jaiak, aparteko giroan

Sorabillako jaietako ekitaldi guztien artean, Jexux Mari Otamendi musikariari egindako omenaldia aipagarrienen artean dago. Esker ona adierazi zioten Andoaingo kultur talde anitzek zein herrita-

rrek. Ikusitakoak ikusita, jai batzordeak badauka harro egoteko motiborik: hirurehun biztanle besterik ez dituen auzoan, urtez urte, egitarau erakargarria osatzeko gaitasuna erakusten ari da.

Musikarekin lotutako herri ekimen aberatsen sortzailea, herri musikaren maitale eta bul-tzatzailea, jendartekoa, eskuza-bala, ekintzailea... Denetarikoa losintxak entzun ziren igandean Sorabillan, Jexux Mari Otamendi hizpide hartuta. Igandean herritar ugari bildu zen Sorabillan, eta bat egin zuten jai batzordeak bera izendatzerakoan azaldu zituzten arrazoiekin.

Goizeko hamarretan, Olagain txistulari bandako kideak kalejiran atera, eta Otamendiren etxe aurrera abiatu ziren, Elkartasuna kalera. Damuba Garaiz (diana) eta Zorionak Zortzikoa piezen doinuekin esnatu berritan topatu zuten. Auzotarrak ere aho bete hortz geratu ziren, txistulariak eskaintzen ari ziren ikuskizunaren lekuko bihurtuta.

Eskaratzean Otamendirentzat egun berezia zenaren lehena atala prestatu zuten. Txistulari taldea, bizilagunak, Mari Gutierrez emaztea eta Otamendi bera tertulia atseginean egon ziren, pastak eta ardo goxoa lagun zituztela.

Eguerdiko hamabietan, berriz, ekitaldi nagusia heldu zen. Hitzordura ez zuten hutsik egin nahi izan Andoaingo hainbat musika eta dantza taldeak: Alberto Agirre abesbatza, Olagain txistulari taldea, Urki eta Axeri dantza taldeak, Sarasola anaiak dultzainarekin, Gora Kaletxiki txaranga...

Jai batzordeko kide den Aitziber Sarasolak aurkeztu zuen ekitaldia, eta besteak beste, sorabillatarrek Otamendi eta bere familiako kide guztiei zapi laranja bana ipini zieten. Omen-duari berari, Sorabillako domina preziatua oparitu zioten.

Musikari lotuta bizi izan da Otamendi, eta musika nagusitu zen omenaldi ekitaldian. Denetarikoa doinuekin entzun baitziren: Euskal herriko semeak gera, Zortzikoa, Andoaingo edo Sorabillako ereserkiak, Joxe Mari Iturzaeta abestia...



"Pozgarria izan da hainbat kultur talde eta herritar bildu izana gaur Sorabillan", adierazi zuen Otamendik.

ESKER ONA, KANTUZ

Jada emozioz gainezka zegoen gizona, eta kantuaren mintzairan erantzun nahi izan zien Sorabillan bildutako guztiei: "Eskerrik asko jaun-andreak bihotz-bihotzetik; eskerrik asko jaun-andreak, orain eta beti". "Ondo segi!" ozen bat oihukatu zuen azkenik.

Ekitaldia amaiturik, Otamendik aktore ospetsu baten moduan jardun behar izan zuen. Besakarda honi, musua

hari, bostekoa besteari... Makina batek berarekin argazkiak ateratzeko aukera ere baliatu zuen. Azken batean, eta modu batera edo bestera, denek ere zenbat estimatzen duten adierazi nahi izan zioten. Eta ez bakarrik kultur eragile gisa, baita pertsona gisa ere.

Hamaiketako aurrera joan ahala, eta jada zerbait lasaitzeko modua eduki zuenean, tartea hartu zuen Aiurriri adierazpen bakan batzuk eskaini

ahal izateko. Bene-benetan agertu zen esker oneko. "Eskerrik eman nahi dizkiet antolatzaileei eta bertaratu diren guztiei. Pozgarria izan da hainbat kultur talde eta herritar bildu izana gaur Sorabillan. Andoaingo herri musika bul-tzatzea izan da nire asmoa beti, eta herritarrek esango dute horrela jokotuta gaurkoaren antzeko merezimendurik behar ote duen batek. Hori bai, egunotan gogoratu dudana be-

"Eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaileei eta bertaratu diren guztiei"
Jexux Mari Otamendi

rretsi nahi nuke: abesbatzari eta txistuari dagokionez, gure aurreko zenbaitek, izen-abizenaren dutenak, mesede handia egin diote Andoaini. Ez dezagun ahaztu hori". Bere-berea duen umore fina erabili zuen, azkenik: "omenaldiak, batzuetan, pertsona bat jubilatuz arazteko edo bazterrean uzteko izaten dira, baina oraingoz behintzat, hori ez da gertatuko nirekin".

FERNANDO GASTON

Otamendi ez da izan Sorabillako jaietan, modu berezian, go-goan hartu duten pertsona bakarra. Fernando Gaston auzokideari gorazarre egin zioten ostiraleko afarian, zikiro jatean. Martxoaren 21ean hil zen Errotagan-Sorabillako Auzo elkarteko eta Sorabillako jai batzordeko kide izan zena. Auzoan antolatzen ziren ekitaldi ugarietan parte hartzen zuen, eta ahaleginak egin zituen beti auzoaren eta auzotarraren ongizatearen alde. Aldi berean, gogoratu behar da Caritas elkarteko lehendakaria izan zela urtetan.

Arrasto sakona utzi zuen gizonak ikusten denez, eta afarian zehar hura oroitzeko unea iritsi zenean, une hunkigarriak bizi izan ziren.

Hitz gozoekin egin zion gorazarre Gastoni Aitziber Sarasola jai batzordekideak. Segidan, Maria Angeles Estanga Gastonen alargunak eta Lidia bere alabak lore sorta eta oroi-garria jaso zuten. Karpa gainezka jarri zuten afalkideek txalo zaparrada batekin erantzun zieten. Ondoren, denak zutik jarrita, Boga-boga abestia abestu zuten; Fernando Gaston omentzeko modurik xalo bezain sentituena izan zen.



Olagain taldeko txistulariak Jexux Mari Otamendi eta Mari Gutierrez emaztearekin eta bizilagunekin batera, goizean goiz.

BURUNTZALDEAN KIROL JARDUERAK EUSKARAZ



Kirol jardueretan euskarari txanda eman

Eskualdeko kirol ikastaroetan euskarari txanda ematea begiz jota dute Udal erakundeek. Datuak argiak dira, euskaraz egin daitekeen kirol eskaintza nabarmen areagotu da azken hamarkadan.

2014-2015. ikasturtean ere euskararen lekukoa erabiltzaileei eskainiko zaie. Hauek lekukoa hartu eta sendo eusteko aitzakiarik ez dute izango.

Irailaren hasiera gauza askoren hasiera da. Besteak beste, kirol ikastaroetara ematen zaie hasiera. Izen emateak, ordutegiak, egutegia, ..., ehunka herritar bere herriko kiroldegian informazio eske edota izena ematen dabil egun hauetan. Izerdia lagun, laster hasiko dira gozatzeko eta sufritzeko sesioak. Gozatu eta sufrituz, kirola eginez beti ere, euskarak ikastaroetan toki garrantzitsua izan dezan lanean ari dira Buruntzaldeko Udalak. Euskara eta kirol arloetan bereziki lan handia egin da eskualdean: 1999az geroztik bost lankidetzaren hitzarmen eta hiru plan egin dira. Guztietan "kirola euskaraz" egitasmoa parte izan da. Kiroldegietan ehunka, milaka herritar ari dira ikastaro ugari eginez eta Udalen xedea kirol zerbitzu horiek euskalduntzea izan da. Batetik, euskara ahoan darabilten monitorea edo begiraleen kopurua areagotuz. Bestetik, euskara kirol jardueran hizkuntza nagusia izateko ekimenak biderkatuz. Azken datuei erreparatuta, Buruntzaldean ikastaroa euskaraz emateko gai den monitorea edo begiraleen portzentaia %95,3koa da. Ia erabatekoa, beraz. Horrek lotura zuzena izan du ikastaroetan euskararen erabilera areagotzeko garaian. Hamar urte atzera erdara nagusi zen. Orain berriz euskara gailentzen ari da. Garapen horren gakoa eskualdean nagusi den metodologian aurki daiteke.



Ander Peñagarikano eta Ruben Villalón kirol ikastaroetako monitorea dira.

"Gero eta gehiagotan egiten da kirola euskaraz, ez dago arazorik"

Kirol ikastaroetan monitorea lanetan aritzea ogibide bilakatu da **Ander Peñagarikano** eta **Ruben Villalón** gazteentzat. Lasarte-Oria eta Urnieta kiroldegietan aritzen dira, nagusiki. Helduekin bereziki, baina baita "Eskola Kirola"n ere.

Ander Peñagarikano zarauztarra azken bost urteetan monitorea lanetan aritu da. Goizero Lasarte-Orian spinning eskolak ematen ditu, bizikleta mantenimendua ondoren. Eta, horrez gain, gimnasia eta spinninga. Eguna Lasarte-Oria eta Urnieta kiroldegietan ematen du.

Anderri ondo iruditzen zaio euskararen erabilera bermatzeko udalek hartutako neurriak, "ondo dator euskara piskanaka barneratzeko. Lehenago, taldea euskalduna izanik ere, erdarara igarotzeko joera zego-

en. Orain talde euskaldunetan euskara nagusitzen da. Ikastaro batzuk teknikoagoak dira eta azalpen gehiago eman behar da. Euskaraz egiteko ahalegina egiten dugu eta baten bati ulertzea kosta egiten bazaio, azalpenak erdaraz ematen zaizkio. Ez da arazorik egoten".

Ruben Villalónen aquagym eskolak ematen hasi ohi du eguna, eta eguerdian hurrekin igerilekuan murgiltzen da berriro. Arratsaldean Urnieta doa eta eguna amaitu aurretik gimnasia ematen du Lasarte-Oriako kiroldegian. Zortzi urtez kirol jardueren irakaskuntzari lotuta bizi da. Euskaraz jarduteko irizpideak ezarri izana ondo iruditzen zaio Rubeni ere, "ikastaroetan hizkuntzen tipologia egin izanarekin ados gaude, ikasleekin jarduteko irizpide batzuk izan ditzagun".

METODOLOGIA

Kiroldegiko ikastaroak euskalduntzeko programaren garapenean metodologia ezberdinak erabili dira. Usurbilen esaterako, ikastaroaren hizkuntza alde aurretik definitzen da. Gainontzeko herrietan hizkuntza irizpidea ikasleei galdetu ondoren ezartzen zen lehen. Gaur egun indarra hartzen ari dena tarteko metodologia da. Alegia, ikastaro batzuetan alde aurretik ezartzen da hizkuntza irizpidea eta beste hainbat kasutan ikasleei galdetu ondoren definitzen da. Metodologia horri erreparatuta, hiru talde egin dira:

- **A taldea.** Partaide guztiek edo ia guztiek ulertzen dute euskara. Ondorioz, ikastaroa euskaraz emango da.
- **B taldea.** Partaideen erdiak baino gehiagok ulertzen du euskara. Beraz, ikastaroa ia erabat euskaraz emango da. Euskara ulertzeko zailtasuna duenari azalpenak gaztelaniaz emango zaizkio.
- **C taldea.** Partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen du euskara. Gauzak horrela, ikastaroa nagusiki gaztelaniaz emango bada ere, euskarari sarbidea emango zaio agurrean, animozko hitzetan, etab.

KIROLDEGIKO IKASTAROAK

Ikasturte honen hasieran Buruntzaldeko Udalek kiroldegira doazen herritarrei "Kiroldegiko ikastaroak euskalduntzeko pro-

Buruntzaldeko Udalek elkarlanean, kirol jardueretan euskarari txanda ematea begiz jota dute

grama"ren berri eman nahi dute. Publi erreportaje honen birtartez edota banatu dituzten eskuorrien bidez hainbat ikastaro euskaraz izango direla iragarri dute eta gainontzekoetan, berriz, talde tipologiaren arabera finkatuko da hizkuntza irizpidea. Alegia, A, B edo C talde modura identifikatu ondoren, horren baitako hizkuntza irizpidea ezarriko dute.

Udalek ikastaroetako ikasleek euskararen lekukoari gogotsu eusteko plangintza serioa eta zorrotza aurkeztu dute, begiralearen hizkuntza-jokaera eta ikasleen ezaugarrien arteko oreka neurtzeraino. *Konkordantzia indizea* deitzen diote horri. Aurreko ikasturteetan ikusitakoaren arabera, euskara nagusi den A eta B taldeetan konkordantzia handia sortzen da begiralearen eta ikasleen arteko hizkuntza-harremanean. C taldeetan, aldiz, euskarari bidea ematea kosta egiten da gehiago.

Irailaren hasiko da ikasturte berria, kirola eginez euskarari eusteko aukera berria. Euskara gertuko ez duenarentzat iraila izan bedi euskara barneratzen hasteko lehen pausoa. Aukerarik ez zaio faltako eskualdean.



Andoingo Udala
Goiko plaza, 2/g
20140 Andoain



Urnieta Udala
San Juan plaza, 2/g
20130 Urnieta



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
Foru enparantza, 13
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA
Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria




Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

BURUNTZALDEAN KIROL JARDUERAK EUSKARAZ

Kirol jardueretan euskarari txanda eman

TALDE TIPOLOGIA KIROLDEGIKO IKASTAROETAN





FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Udako argazkiak

U da joatear, eta udazke-na prest dago Sanmiele-tan dotore jantzi eta bere aroari hasiera emateko. Udak berekin ditu oporrak: eguzkia, beroa, itsasoa... Txinatar kulturak Yang garaia gisa hartu ohi dute. Udan, Yang, esan nahi baita, ordutegiak eta eguraldiak lagunduta, gorputza zabaldu egiten dela, beste energia bat sortzen dela: arropa arinagoak eta elikadura ere leuna, freskoagoa ez negukoa bezain beroa. Oporrek, bestalde, arin dute soinean gauean genuen motxila: ezbeharrak, beldurrak, kezka, arazoak -eta ez gutxi- krisia dela medio; harremanak ere agian uki-tuak eta hainbat eta hainbat sentimendu eta sentsazio ilun. Horretarako izan bada uda, bejondeigula!

Gizarteak, halaber, udan bere bidea egin du. Herri, elkarte, bizi garen tribuak ez du geldialdirik; dena doa aurrera; gaur badena bihar ez da, eta horrela etengabe.

Gizarteari dagokionez gertakari anitz gertatu dira. Nork bere ikuspegi propioa du, eta nik ere komunikabideek irakurri eta entzuterakoan hau edo beste hura pentsatzen dut. Udan handik eta hemendik jaso ditudanei, alegia, *Udako argazkiak* izenburua jarri diet.

PALESTINA

Niretzat Palestinakoa izan da udako berririk edo argazkirik gogorrena eta krudelena. Israelen erasoak ez du gupidarik izan. Dena txikitu dute eta pertsonen dagokionez, ez dute kontuan hartu ezta jaioberri bat ere. Haurren irudiak, hilak zein bakardadean negarra zerienez, benetan hunkigarriak izan dira. Udan egin diren zenbait manifestazioetan honako kontsigna oihukatzen zen: "ez da gerra, genozidioa baizik". Israel armamentu gehien duen herrialdea izanik, zaila da palestinar gizajoen aurka, zeintzuk ez duten armarik, gerra bat bilatzea bere herri nahia defendatzeko. Garai baten biktima zirenak egun berrero bilakatu dira. Historiaren ironiak! Genozidio honen aurrean jende ugari hartu du parte egin diren protestetan. Baina, nik, egin esan, gehiago espero nuen. Alderdi politiko gehienak, salbuespen batzuk kenduta, ez dute ezer asko egin jendeak masiboki

Niretzat Palestinakoa izan da udako berririk edo argazkirik gogorrena eta krudelena

parte har zezan. Esaterako, EH Bilduk jendea mugiarazteko duen gaitasuna hutsean geratu da, nire irudiko jakina. Udalak ere, mozio gutxi aurkeztu dituzte eraso hori gaitzesteko. Hainbat eta hainbat ekimen egin zitezkeen baina... Dena den, nire zutabe honetatik elkartasuna eta esker ona agertu nahi nizkieke israeldar ez sionista direnei. Alegia, biak, Israeliek nahiz Palestinak estatu propioa izan dezaten defendatzen dutenei. Hori da bidea eta Israeliek, hainbeste sufritutako herriak aspaldi ikasi behar zuen ikasgaia. Aurrera Palestina!

ARGENTINARI BEGIRA

Asko gara Argentinan itxaropena jarrita dugunok. Hara joan ginen oroimena, justizia eta erreparazio eske eta esku zabalik hartu gintuzten. Ez da lortu torturazailer eta 1936ko gerran hilik eroritakoen oroimena berreskuratzetik baina, agian, egunen batean zertxobait lortuko da. Muñecas kapitainak, torturazailer eta Zarautzen egondakoak agian deklaratu behar du Azpeitiko epaitegian. Baina, udako argazkia zera izan da: Argentinako Maiatzaren Plazan biltzen diren amen eta amonen presidentearen desgertutako biloba agertu dela. A zer nolako poza! Gogoan dut plaza hark zer nolako inpresio sortu zidan. Poztu nintzen, albiste irakurtzerakoan.

HONDARRIBIKO ALARDEA

Oraindik udan gara eta gaur komunikabideetan ikusitakoak lotsarazi egin nau. Urtero gertatzen da, baina halere gezurra dirudi urteak joan ahala, eta XXI. mendean horrelako irudi eta argazkiak ikusi beharra. Lotsagarria da bi alarde egonik, Jaizkibeletok hainbeste irain jasan behar izatea. Ez dut esaten alarde bakarra izan behar duenik, baina, gutxienez errespetua eta herri agintariak biak onar ditzatela eta babestu ditzatela. Gezurra dirudi Eusko Jaurlaritzak berdintasuna hainbeste oihukatzen duenean, ondoren, alderdi bereko alkateak beste zerbait defendatzea. Lotsagarria!

Uda honetan argazki gehiago ere izan dira, baina nik neuk hauek aukeratu ditut. Eta bukatu aurretik katalanei Diada egunean zorriker onena opa diet. Izanen dugu aukera hortaz hitz egiteko.

Izan ongi etorriak Aiurriren orrialdeetara!

HITZ-GEZIDUNAK

* Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko kidea

		Zuberoako udalerria			* DEITURA		Azalera unitatea	
		EH-ko mendialdea			Gela handia		Abiada	
		Bizkaiko eskualdea						
		Europako estatura						
Andrea, emakumea		Toka, zuen		Arnas ezak hila				Ontzat hartu
* IZENA		lailoak		Ez eme				
					Ongi			
					Gizon izena			
Baserritar								
Ez ahal								
				Bokala		(zah.) Zakurra		
				Barazki hotsoa		Nahastura trinko		
Tulioaren ikurra			Animalia urlehortar			Argonaren ikurra		
Meategiko langile			Kontsonante bustia			Iridioa balio du		
							Tona, labur-labur	
							Kontsonantea	
Agiri mota					Hoben			

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESQUIN: 1. Fenomeno baten ezaugarriak azaltzeko oinarritut hartzen den elementu aldagarri garrantzitsu. 2. Bokala. Gizon izena. 3. Lutezioaren ikurra. Prestatu. 4. Dimako auzoa. Latz. 5. Letra mota. Zer lekutara? 6. Uda. Ardi, hitz elkartzean. 7. Emakume izena. Arsenikoa balio du. 8. Zati txikia. Uranioaren ikur kimikoa. 9. Aranokoa.

GOITIK BEHERA: 1. Pilotuaren lanbidea. 2. Bokala. Ubidekoa. 3. Alderantziz, Frantzia adierazteko. Ez du parerik. 4. Edo. Animalia adardun. 5. Labur. Ugari. 6. Bizkaieraz, eraman. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan. 7. Finkoa. Ez eme. 8. Detektagailu mota. Kontsonantea. 9. Onura asko dakartzana.

GOITIK BEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

1. Barazki gisa erabilitako fruitua. 2. Gurtza jasotzen duen irudia. 3. Gizon izena. 4. Landare arantzatsua. 5. Sarrera nahiz irteera. 6. Zuhaitz mota. 7. Gela handi. 8. Berriz, aldiz. 9. Ahapaldia.

ERANTZUNAK

Tornalea, Tolomea, Maita, Orea, Arte, Arto, Oleria, Bertsua.

5. Motz, Asko. 6. Eroan. 7. Tinkoa. 8. Rada. 9. Onratsua.

6. Tipo, Nora. 7. Urdara. 8. Lu. Alondu. 9. Oba. Zaki.

A	R	E	A	O	N	A	T	U
E	L	B	I	A	D	O	R	R
A	R	E	Z	O	A	O	R	E
I	R	U	R	K	E	P	A	R
A	G	I	A	K	A	P	Z	A
E	A	B	A	R	E	T	A	A



KIROL ALBISTEAK

Urnietako futbol taldeen aurkezpena larunbat honetan

Urnietako futbol taldeek denboraldi berriari ekin aurretik herritarren aurrean aurkezpena egingo dute. Horretarako, taldeak urteroko ekitaldia antolatu du. Arina eta oso polita da, ezagutzen ez duenarentzat gomendagarria. Jokalariak banan bana aurkezteaz gain, hitzordua taldeko argazkiak egiteko baliatzen da. Musika eta dantza ez dira faltako.

Gaztetxoenetik hasi eta Erregional mailakoak bitarte, eguneko protagonistak jokalariek izango dira.



Ekitaldi polita antolatuko dute aurten ere.

DENBORALDIRAKO MOTORRAK BEROTZEN

■ Euskalduna txapelketan, erregional mailako taldearen partida liga hasi baino aste-bete lehenago. Euskalduna-Urnieta Ubitarte zelaia. Irailak 13, larunbata. 18:30.

■ Jubenil mailako Ricard eta Begiristain memoria. Partaideak: Urnieta, Ostadar, Hernani. 10:00-12:00. Irailak 13, larunbata.

Herri Bira igandean

Urnietakoa 9,5 kilometroko lasterketa da, herrigunea zeharkatzen duena. Dagoeneko izena eman daiteke herrikrossa.com gunean.

Mikel Iturria Sierra Nevadan



Urnietarra Euskadi fundazioarekin bi urtez kontinental mailako profesional taldean ibili eta gero, 23 urte azpikoen munduko txapelketa prestatzen ari da. Irailaren 18ra arte Sierra Nevadan entrenatzen ariko da eta egun hauetan jakingo du hautatzaileak lasterketan parte hartzeke aukeratuko duen ala ez. Baiezkoa balitz, lasterketa Ponferradan litzateke irailaren 26an.

Seitiko bost korrikalarik parte hartuko dute Espainiako selekzioarekin: Mikel Iturria eta Mikel Aristi (Euskadi), Marc Soler (Lizarte), Imanol Estevez (Zirauna), Miguel Angel Benito (Caja Rural) eta Mario González (Active Jet).

Andoaingo areto futbola

Andoaingo areto futboleko txapelketa irailaren 27an abiatuko da. Izen-ematea irailaren 17ra arte egongo da irekita eta, gehienez, 18 taldek hartuko dute parte. Aurtengo izen-emate kutoa 372 eurokoa da. Informazioa Allurralden.

Boxeoa utzi eta triatloian buru-belarri



Iban Estebez ez da geldirik egoteko jai. Boxeoaren mundua alde batera utzi eta hilabete gutxira kirol erronka berriak jomugan hartu ditu. Lasterketa ezberdinetan aritu zen korrika eginez, eta azken aldi honetan triatloian dabil buru-belarri. Aurreko asteburuan Zumaiakoa, hasiberrien proban hartu

zuen parte, emaitza bikaina lortuz (igeri eginez 350 metro, bizikleta gainean 10 kilometro eta korrika 2,5 kilometro). Gustura eta pozik dago egindakoarekin eta datorren asteburu honetan Hondarribikoan parte hartuko du distantzia berdinekin eginez. Boxeolari, ez. Dagoeneko triatleta deitu behar diogu.

Buruntzaldea igeriketa taldea lanean hasi da



Buruntzaldea IKT taldeak ikasturte berrirako egutegia aurkeztu du. Haurren igeriketari dagokionez, 2006 eta 2005ean jaiotakoak astearte eta ostegunetan izango dute klasea, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara.

2004, 2003 eta 2002an jaiotakoak, berriz, astelehenetan 17:00etatik 18:00etara edota asteazken eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara.

Adin txikikoei ur gainean egoten irakatsiko diete, saltoak eta biraketak egiten, uretara sartzen eta txapelketetako estiloekin hasiko dira. Gainontzeko adin tartean entrenamendu formalagoak dira; igeriketa estiloak eta txapelketako araudiak irakasten dira.

Izena emateko epea zabalik dago: buruntzaldeaikt.blogspot.com 696 506 632.

Julen Loitegi munduko trinkete txapelketan

Urnietako Kirol Elkartearen Julen Loitegi Munduko trinkete txapelketan jokatzeko hasi da asteburu honetan, eskuzko modalitatean. Gogor entrenatu eta pilotari betearoen aurka jokatu ostean, pilotari urnietarra titular modura arituko dela adierazi du UKEk. Urnietar gaztea, beraz, estatuko selekzioaren ordezkaria izango da Mexikon. Mundu txapelketa irailaren 11tik 21era jokatu da, Zinacantepec Tolucan. Taldea irailaren 5ean abiatu zen hara, bertako klimara ohitu eta horrelako kirol baldintzetara egokitzen joateko. izan ere, pilotalekua dagoen herria 2.700 metroko altueran dago.

Iaz Uruguayn brontzezko domina lortu zuen, 22 urte azpikoen mailan.



UKE taldeak zorterik onena opa dio Juleni, eta ikasteaz gain, lorpenen bat lortzea desio dio.

Aurkari handiak bertako kirolariak izango dira, eta baita trinketearen eskarmentu handia duten Ipar Euskal Herriko pilotariak ere.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzinean

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi
(Andoain), Gaizka
Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Diada

Andoain

- Gure Esku dago** taldearen deialdia: "Irailaren 11n Diada. Erabakitzeke esku-bidea bai Katalunian, baita Euskal Herrian ere. Elkarrekin V bat egitera animatzen zaituztegu". 20:00. Zumea plaza. Irailak 11, osteguna.

Ikastaroak

Andoain

- Euskarazko hastapen ikastaroak** guraso, aiton-amon edota zaintzaileentzat. Ikastaroak urritik ekainera, Andoaingo ikastetxeetan bertan, astelehen eta asteazkenetan. 14:35-16:20. Informazio gehiago Udaltxean eta AEKn.
- Jabetze eskola: Feminismoa.** Mugimenduak egiten dituen ekarpenekin eta gaur egun gizartearen eztabaida sortzen ari diren gaiekin harremanetan jarri nahi duten adin guztietako emakumei zuzenduta dago. Urrian, asteartero. 18:30-20:30. Urigain. Matrikula: 10 euro. Ataria. Epea: Irailak 30.

Urnietan, Sarobe

- Saroben yoga edo pilates helduentzat. Dantza, balleta edo gazte funky gazteentzat. Izen ematea irailaren 19ra bitarte.
- "Autoconocimiento para el cambio", Pepa Bojoren eskutik. Izen ematea: Bertan. Urriak 10-azaroak 21.

Batzarra

Andoain

- Zuena elkartearen bazkideen batzarra. Bestalde, ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. 17:30. Zuena. Irailak 17, asteazkena.

Sanmielak

Urnietan

- Jaien hasiera** 19:00 Txupinazoa. Irailak 25, osteguna.
- Iñistor jaia** irailaren 29an. Omenaldia bazkalostean Edu Muruamendiara. Bazkarirako txartelak salgai, ohiko tokietan.
- Jubilatuaren bazkaria** irailaren 29an Oianumen. Agertu nahi duen urnietarrak, elkarte kuota ordainduta duela aurkezteaz gain, 12 euroko ordainketa egin behar du.
- Elkartasunezko tonbola** Pausoka elkartearen alde, txosnatan. Irailak 25-30.

Deialdia

Andoain

- Lagunak futbol taldeko kideen bilkura.** Iraganen futbol txapelketa ugariz gain ospe handia lortu zuen Lagunak futbol taldeko kideak bazkari batean bilduko dira. Parte hartu nahi dutenentzat, hona izena emateko telefonoak: 690 260 340 (Xabier Agirre) edo 646 113 705 (Julian Lopez). Izen-ematea, azken eguna: Irailak 18, osteguna. Bazkaria Ontzan: Irailak 20, larunbata.

Jaiak

Usurbil

- Argia eguna:** Fanfarrea, bazkaria, musika. Usurbil herrigunean. Irailak 27, larunbata.

Hernani

- Pausoka eguna,** behar bereziak dituzten haurren gurasoek antolatuta. Tailerrak, bazkaria, pailazoak, musika, etab. Pertsona ezagunen parte hartzearekin. Atsegindegi. Urriak 11, larunbata.

Lehiaketa

Urnietan

- Pintura lehiaketaren XVII. edizioa.** Deialdia irekia da eta edonork har dezake parte. Doakoa da. Parte hartzaile bakoitzak gutxienez koadro bat aurkeztu behar du eta gehienez hiru. Gaia librea izango da. Nolanahi ere, ezinbesteko baldintza izango da Urnietako herrian girotua izatea. Oinarriak urnieta.org gunean irakurgai daude. Irailak 21, larunbata.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

- "Barealdi magikoa", Ttamtaka teatro taldearen ikusizun berria. 20:00. Sarrera: 3,5 euro. Irailak 26, ostirala.

Gazteak

Urnietan

- Gazte lokala** irekita irailaren 8tik aurrera. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera. 17:00-20:00

Andoain

- Gazte lokalean** irailaren 17an emango diote hasiera ikasturteari. Ordutegia: Asteazkenetik igandera. 17:00-20:30.

Musika

Andoain, Gaztetxea

- Musika zuzenean webgunearen aldeko kontzertua: Willis Drummond, Borrokan, Tutan come on. DJak. 22:00. Gaztetxea. 7 euro. Irailak 27, larunbata.

Urnietan

- Kontzertuak** jaietan: Kaotiko, Glaukoma, Los zopilotes txirriaos, herriko taldeak,... Irailak 26-28.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Anne Lianek irailaren 9an 5 urte bete zituen. Zorionak etxekoan partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak pasa den zuen 50. urteurrenarengatik. Urrezko etzeiak! Zuekin eta zuei esker egindako ibilbidea zoragarria izan da! Muxu handi bat biloben eta zuen seme-alaben partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Gorka Diez Rezolak irailaren 24an 17 urte egingo ditu. Zorionak etxeko "txikiari" eta muxu handi bat denon partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aitonak eta Maddik irailaren 8 eta 15ean urteak betetzen dituzte. Zorionak bioi etxekoan partetik. Muaaaaa!!!!

ANDOAIN

ZORIONAK



Eñaut Berrueta Aznarrek uztailearen 27an 2 urte bete zituen. Muxu handi aiton-amon eta osabaren partetik.

ANDOAIN

MERKATU TXIKIA: Neska euskalduna behar da 2 haur zaintzeko, Andoainen: 650 341 108.

Aiurri ZORION AGURRAK diseinua@aiurri.com

Argia eguna
IRAILAK 27 USURBIL

FANFARREA
USURBILGO ARGIAREN LAGUNEI OMENALDIA
IBILDIA - TAILER EKOLOGISTA
HAURRENTZAT JOLASAK
ARGIAZALEEN TOPAKETA
HERRI BAZKARI UMORETSUA
JOLAS ZIRIKATZAILAK
BERTSO SAIOA - KALE EZTANDA
KONTZERTUAK

Laguntzaileak: **anča**